

ASTE SANTUA

Aste Santua. Aurten, aurreratua etorri zaigu. Garizuma lendabizi, ta ondoren Kristoren nekaldi ta eriotza. Nere emaztea, iñoiz edo bein, bere umetxoak lagun ditula, beeko elizan eman dituzten gogo-jardunetan ere izan zait. Pozarren etorri izan dira etxera. Ni Ostiral Santuz izan nintzan elizkizunetan; betiko zeremoni ta ekintzen ostean, gurutz-bidea egin zuten apaizak, oso sentikorra egin ere. Eliztar guztiok kantatu genezan, irarritako paper batzuk zabaldu zizkiguten. Ona bertan zetorrena.

Doiñu: 6/5.

I

Eriotz-epaia

Pilato-k du eman
epai gaiztoa,
gurutzan josteko
gure Jainkoa.

II

Gurutzea leporatzen

Lepoz daramazu
gurutze latza:
ar eizu baita
nere biotza.

III

Lurrean eroria

Emen da jausi
Kristo lurrera,
lurra jasotzeko
zeru gaiñera.

IV
Kristo ta Ama

Maria-k dakus
bere Semea,
gurutzea bizkar
nekez betea.

V
Simon zirineta

Gurutz eramaten
Simon-ek legez,
dizut lagunduko,
Kristo, nik pozez.

VI
Beronika

Arpegiko izardi
ta odoletan
zapia du busti
iru izurretan.

VII
Bigarren aldiz jausi

Bigarrenez Kristo
bean da jausi,
ta neri biotza
ez ote ausi?

VIII
Jerusalen-go andreak

Andre taldea urbil
doa negarrez:
damu gaitezen gu
geure egin txarrez.

IX

Irugarrenez lurrera

Gure onik ezak
dauko gaillurra,
iru aldiz Kristok
jo digu lurra.

X

Kristo billoizik

Ona nun daukagun
Kristo billoizik,
soin-gogo eztala
miña besterik.

XI

Kristo gurutzean

Esku eta oiñak
iltzez josita,
emen daukat Kristo
oi nere Aita!

XII

Gurutzean zintzilik

Ti zaigu Jainkoa,
zeruko argi:
gogora gaitezen
orain ta beti.

XIII

Kristo ta Ama

Gurutze gaiñetik
Ama damaigu:
dongak izan arren,
Ark maite gaitu.

XIV

Kristo obian

Illobian daukat
Jainko maitea;
zintzo bete daidan
bere legea.

XV

Kristo berbiztua

Kristo piztu zaigu
illen artetik;
gu atera naiez
gaiztakeritik.

NERE BASERR!A

*Bizi garan tokia —lur, etxe— goretsiaz ez genuke iñoiz
ere aspertu bear; are gutxiago, geure sorlekua baldin bada.
Nk ezin dut beintzat nere kabitxoa, mendiska barrenean ja-
rria, lore ta zugaitz orlegiz inguratua, bertso berotan goretsi
gabe luzaro iraun. Urteko aro guztietan bai ditu bere barne-
lillura eztiak.*

Doiñu: «Gernika-kc arbola...».